

EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

Eusko Legebiltzarrak bat egiten du 21. Korrikarekin eta bere helburuekin

Herri-gogoaren ordezkari gisa, Legebiltzarrak ere klika egiten dugu. Klika egitea aukera bat hartzea baita, euskararen aukera, hautu hori egitea: Klika egitea da herritar guztion hizkuntza-eskubideak bermatzeko neurriak hartzea.


Hori dela eta, konpromisoetara jauzi egitea aldarrikatu nahi dugu, euskararen hurrengo fasea klikatzea, aktibazioarena, alegia. Euskararen aroan gaude; orain da unea.

Gure ustez, aukera paregabea dugu konpromisoak hartzeko, norik bere esparru eta erantzukizunetik, jakina; badugu egia bihurtzen hastea, oraindik ere ameskeriak direnak.

Guzti horrengatik, klika egiteko prest gaude, ziur gaude ameskeriak izan daitezkeenak egia bihurtzeko on bidean jarriko ditugula, denon artean, eta elkarlanean.

Hori dela eta, euskararen klika egiteko eta honako konpromiso hauek hartzeko prest gaude:

- Euskararen erabilpen maila handiagoa sustatu eta praktika linguistiko berriak bultzatzen dituzten testuinguruak sortu, euskarazko hizkuntza-praktika eta harremanak bultzatuz.
- Helburu horiek lortzeko, hiztunei prestakuntza eta ahalduntze-tresnak eskaini, euskarazko harremanetarako espazioak sortu eta praktika hori bultzatuz.



- Herritar euskaltzaleak aktibatzearen bidez euskararen erabilpena sustatu.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko martxoaren 22a

EUZKO ABERTZALEAK-NACIONALISTAS
VASCOS LEGEBILTZAR TALDEA

EHBILDU LEGEBILTZAR TALDEA

ELKARREKIN PODEMOS LEGEBILTZAR
TALDEA

SOCIALISTAS VASCOS-EUSKAL
SOZIALISTAK LEGEBILTZAR TALDEA

GRUPO POPULAR VASCO-EUSKAL TALDE
POPULARRA LEGEBILTZAR TALDEA